

IRAGANAREN ETA ETORKIZUNAREN ARTEAN

Gaur egungo *HL* kopurua iraganaren eta etorkizunaren artean dago. Urruneko baina oraindik gertu dagoen iraganari dagokio industria-ehuna suntsitzea, horrek herrialdeetan eragin dituen kalteekin batera, ondasunen galera, lanaren suntsiketa eta pertsonentzako bizimodu mailaren atzerakada besteak beste. Etorkizunarekin bat egin duen iragan berrienari dagokio, gehiago edo gutxiago —ereduen, praktiken eta ekonomia nahiz gizarteen sarreraren arabera— baina tradiziozko ekoizpen moduetatik, azpiegituretatik eta jendearen jakituriatik abiatuta errealitate ekonomiko eta sozial berriak egokitzea bilatzen duten ekoizpen eredu berriak bilatzearen bitartez alor sozio-ekonomikoa birsortzeko ahalegin eta saioekin erlazonaturik dagoen oro.

Nazioarteko itxurari dagokionez, Helena Francoren artikulua mundua berregituratzearen ondorioz kalte handienak jasan dituzten herrialdeek, industrializazio zaharrena duten herrialdeek, beheraldi egoeratik irteteko dituzten bideak, garatzeko dituzten aukera ezberdinak aztertzen ditu. Herrialde guztien artean, kon-tuan gutxien hartzen dituztenei garrantzia berezia ematen die: industria garatua duen lurralde batek ondutako teknologien bitartez eraldatzeko duen aukera aztertzen du. Garai fordistatik fordismo ondorengo garaira masazko industri ekoizpe-nean gertatu diren garapen eredu ezberdinen berri ematen du Luciano Vasapollok. Ekoizpen eredu malguaren oinarria eskaeraren araberrako ekoizpena zehaztea omen da, eta baliabide kapital ukiezinak ardatz dituen lehiakortasunera bideratzea. Ardatz hori gaizki ordaindutako eta arauz kanpoko eskulanarekin bateragarria da eta horri egokitua dago. Artikuluan Italiako lan merkatua aztertzen du, horretarako ekonomia estatistika eredu sofistikatua erabilia.

Aitor Cobanera Euskal Herrian laurogeigarren hamarkadan gertatutako desindustrializazioa ari da aztertzen. Ikerlariak geldialdia egin du Eusko Jaurlaritzak eta Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Sozietateak (SPRI) 1981 eta 1998 urteen artean praktikan jarritako birmoldaketa ekintzak zehatz aztertzeko. Bilboko Itsasadarra Estatu Espainoleko industria zentro indartsuenetakoa eta euskal industrializazioaren epizentroa izan da. Susana Serranoren lanak iragan zaharrenaren hedadura aztertzen du, XIX. mendearen bigarren zatian hasi eta XX. mendearen hirurogeita hamargarren urteetan jarraipena izan zuen modernizazio prozesuarekin. Gertakari horren ondoko iraganari dagokio industriaren birmoldaketa eta ekonomiaren berregituraketa aztertzea, hirien birsortzearekin batera.

Andres Araujo, Imanol Basterretxea, Ana Gonzalez, Maria Saiz eta Lola Simonek egindako lana gaurkotasun berrienean kokatzen da, auto-enplegua sustatzeko estrategia gizartea eta ekonomia birsortzeko eta lanpostuak sortzeko giltzarri gisa aztertuz. Horretarako Bizkaian enpresak sortzen dituzten agentziek egiten duten lana hartu dute abiapuntu, eta horien eraginkortasuna hobetzeko gomendioak ematen dituzte. Esanguratsua da ikertzaileek adierazi dutena, alegia, ekonomiaren egungo hedapenak eta horren ondorioz norberak bere aldetik lana aurkitzeko erraztasuna handitzeak agentzia horien lana murriztu duela.

Laurogeita hamargarren hamarkadan hasitako hirigintza politika egokitu eta berriro bideratuz Bilboko eremu metropolitarran gertatutako hiri-berpiztea aztertu du Arantxa Rodriguezek, horretarako aplikaturiko estrategiak eta hirigintza kudeaketa ikertuz. Abandoibarrako zonaldearen adibidea, Bilboko hiriaren erdigunean, egokia da proiektu publiko handiek sortutako higiezinaren gainbalio handiak eskuratzerako orduan duten finantza mendekotasunaren ilustrazio kritika egiteko. Izan ere, sustatzaile pribatuek eskuratzen ohi dituzte higiezinaren gainbalio horiek. Hala ere, Guggenheim eta Kongresuen Jauregia bezalako ekipamendu handien finantziazio publikoa auto-finantziazioaren fikzioa proposatzera darama aztertzailea.

Industria birmoldaketa prozesuaren alderdietako bat, baina ez alderdi hori bakarrik, enpresen krisiaren handitzea eta beste enpresa berri batzuen sorrera da. Prozesu horri Schumpeter ekonomilari austriarrak jarri dio izena, *sormenaren suntsiketa*, alegia. Jaime Segalesen lana Ley Concursalen proiektuari buruzkoa da. Proiektu horrek aldaketa gogorra proposatzen du enpresariaren kaudimenik edo likideziarik gabeko prozeduretan langileek duten kokapenari dagokionez. Segalesen arabera, prozedura horiek ikusita beharrezkoa da enpresen krisietan sindikatuek duten jarduera egokitu eta berriz bideratzea.

Azkenik, Phil Cookek Galesen ekonomia eta hiria berpizteko lurralde erakundeek duten ekintza ahalmena aztertzen du. Erresuma Batuen testuinguruan kokaturik, eta aurrekontu baliabideak gero eta murrizagoak direla kontuan izanik.

Bestalde, eta aldizkariaren helburuak hobeto betetzeko, aldizkariaren prezioa —nagusitutako joeraren aurka bada ere— 10 eurora jaitsiko dute datorren 7. aletik aurrera. Neurri hori gure aldizkariaren norbanako harpidedunen eta aleak soltean jasotzen dituzten guztien gustukoa izango delakoan gaude.

JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA
LAN-HARREMANAK zuzendaria